

2002-01-17
kioskoa**Xabier Lekuona**

Metakazetaritza

Euskal Herriko eta Espainiako egunkari gehienek jaso zuten atzo *Gara*-ko eta EGUNKARIAKO zuzendarien kontra Auzitegi Nazionalak egindako inputazioaren albistea. Bi taldetan bereiz daitezke atzoko egunkariak: albistea jaso eta euren kabuz iritziak biltzen saiatu direnak eta albistea jaso baino egin ez dutenak: lehen taldean, *Gara*, *Deia* eta *Diario de Noticias* daude eta bestean, *El Diario Vasco*, *El Correo Español*, *Abc*, *Diario de Navarra*, *El País*, *El Mundo*...

Hala ere, bigarren taldeko egunkari horien artean ere, desberdintasun handiak ikusi ahal izan dira: *El País*-ek eta *Diario de Navarra*-k zutabe bat aski izan dute gaia jorratzeko, inongo erreakziorik jaso gabe, teletipoek Joseba Azkarragarena, Josu Jon Imazena, IUrena eta ELArena igorri arren; ez dute, antza, kazetarien kazetaritzaz jardun nahi izan; *Grupo Correo*-ko bi egunkariak, aldiz, teletipoetako erreakzioak jaso eta gaia zabalago jorratu dute, *Le Journal*-ek egin bezala, azken horrek gaia lehen orrialdera eramanda. Hiru egunkari horiek ez dute erreakzio propiorik jasotzeko ahalegirik egin.

Beste taldean *Gara*-k egunkarietako zuzendariak eta politikariak bilatu ditu, eta guztiek adierazi diote Garzonen beste ekinbide honen «bidegabekeria». *Diario de Noticias*-ek ere, «Prentsa askatasunaren babesean» tituluarekin egin du albistea, eta Mertzxe Aizpurua *Gara*-ko zuzendariari eta Martxelo Otamendi EGUNKARIAKOari eskatutako iritziak bildu ditu. *Deia*-k titularra bi zuzendarion mezuari eman dio: «*Gara* eta EGUNKARIAKO zuzendariak uste dute beren ahotsa isilarazi nahi dela», eta Juanjo Baños zuzendariak bere ohiko txokoa gaiari eskaini dio. Bere ohiko zutabea inputazioari eskaini dion beste kazetaria Mariano Ferrer izan da *El Mundo*-n, epailearen jarrera kritikatzeko.

Egunkaria
euskaldunon 3.451. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde**Administratzaile Kontseiluko Lehendakaria:** Joan Mari Torrealdai**Kontseilari Ordezkarria:** Iñaki Uribe**Zuzendaria:** Martxelo Otamendi**Gerentea:** Mikel Sorozabal**Publizitatea:** Idoia Sanz**Egoitza Nagusia:** Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitate faxa: 943300707**Webgunea:** www.egunkaria.com**Posta elektronikoa:** egunkaria@egunkaria.com**Publizitatea:** publi@egunkaria.comBatzarde Parekidea. 72664 E. Lege Gordailua. SS 800/90 ISSN 1134-640X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA**ORDEZKARITZAK** ■ **Araba:** San Antonio, 20-1 ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131965**Nafarroa:** Irabiz Monasterioa, 45-13. esk. (Irritzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686**Bizkaia:** Egi Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114**Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa:** Pannecau 14, 1 503 Posta
kubxatila, 64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo



hizpideak

Aznarrekiko mesfidantza Europako Legebiltzarrean

Espainiako Gorteetan entzun ohi ez dituen kritikak entzun ditu Jose Maria Aznarrek Estrasburgoko Legebiltzarrean, Europako Lehendakartzaren estreinako agerraldian. Sei hilabeteotan «terrorismoaren aurkako borroka» izango duela lehentasun nagusi azaldu zuen Aznarrek eta, talde popularreko eta sozialistako bozeramaileek salbu, hitza hartu zuten beste europarlamentario gehienek mesfidantzaz hartu zituzten Aznarren errezetak. Ezker Batuko eta Berdeetako eledunek, esate baterako, eskubideak eta askatasunak urratzeko arriskuaz ohartarazi zioten, eta Graham Watsonek, talde liberalaren izenean, Europako «eskualde eta kultur aniztasuna» ez aitortzea leporatu zion.

Babes gabe geratu da Zornotzako alkatea

Begoña Azarloza Zornotzako alkatea bertan behera utzi du Boroako ziklo konbinatuko zentral termikoari buruz iganderako deituta zuen iritzi inkesta. Azarlozak argudiatu du «babes politiko eta sozialik ezak» bultzatu duela erabakia hartzera. Aztertu beharko luke, ordea, babesik eza zerk eragin duen. Gogoratu behar da joan den urteko irailean herri galdeketa deituko zuela iragarri zuenean alde guztiak, EBB-EAJ bere alderdiko organo gorena izan ezik, pozik agertu zirela erabakiarekin. Gerora gertatu direnen ondorioz –Azarloza eta EAJko beste sei zinegotzi alderditik kanporatzeko prozesua abiatzea, herri galdeketa iritzi inkesta bilakatzea...–, Azarloza babes gabe geratu da.



Hiru haur palestinar Ahmed Saadaten atxiloteta salatzen.



Hainbat herritar Zornotzako udalbatzar batean.

Gamesaren kontratu berriaren zapore mingotsa

Herenegun Gamesa Aeronautikak A380 hegazkinaren fuselaje osagarriak ekoizteko sinatutako kontratuak —540 milioi euro fakturatzea espero da— poza baino gehiago zapore mingotsa eragin du sindikatuen artean. Oraindik gertu daude 85 langilerentzako erregulazio espedientearen oihartzunak. ELAren irudiko, kaleratzeok gauzatzeko Gamesak argudiatutako krisialdia «engainu hutsa» izan da eta enpresak, langileen gainetik, etekinak lortzea du xede nagusi. Kontratu erraldoi honen ekoizpena non egingo den ez da zehaztu oraindik, baina zatirik handiena Sevillan egingo ote den susmo handia dago.

Arafat, aterabide gabe

Jasser Arafat Palestinako Aginte Nazionaleko presidentetak gatazka kontrolatu ezinean jarraitzen du, Rehavam Zeevi Turismo ministroa hiltzea Israeliek egotzi dion FPLP erakundeko burua bere gobernuak atxilotu ostean erakunde islamikoak aurka jarri baitzaizkio, eta Tel Aviven jarrera aldaketarik ere ez baitu eragin. Israelgo lehen ministro Ariel Sharonen PANen ekimen oro faltsutzat jotzen du, eta Likud bere alderdiak estatu palestinarra sortzearen aurka zegoela esan zuen atzo. Zeeviren hilketa dela eta beste hiru ekintzaile atxilotzeko eskatu dio Israeliek Arafati, eta bitartean ezingo dela Ramalatik irten ohartarazi. Erakunde islamikoek PAN Tel Aviven menpe dagoela salatu dute, eta erresistentzia gogortzeko asmoa dute.